



## Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikastetari buruzko dokumentuak

# Ikasten duten emakumeak Gipuzkoan

63. dokumentua

2019ko martxoak 8

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Ingurune eta  
Lurralde Orekako Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Medio Rural  
y Equilibrio Territorial

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Emakumea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan.....</b>	<b>4</b>
2.1. Ikasten duten emakumeak .....	4
2.1.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan .....	4
2.1.2. Aldi baterako perspektiba: partaidetza gorakorra.....	5
2.1.3. Ikaskuntzan parte hartzea eta adina .....	6
2.2. Emakumeak eta ikaskuntza motak.....	8
2.2.1. Parte-hartzea ikaskuntza formalean eta ez-formalean .....	8
2.2.2. Parte-hartzea ikaskuntza-modalitatearen eta adinaren arabera .....	9
2.3. Partaidetza jarraitua ikaskuntzan .....	12
<b>3. Ikasteko pertsonen arrazoiak, trabak eta asmoak .....</b>	<b>14</b>
3.1. Bizi osoan zehar ikasteko arrazoiak .....	14
3.2. Bizi osoan zehar ikasteko oztopoak .....	15
3.3. Emakumeen ikasteko asmoa .....	17

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia duen eta lehiakorra eta dinamikoa den gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, ikaskuntzaren gizarte sortu behar da, ekonomia produktiboagoa garatu eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Helburu hori du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreako Departamentuak, eta hala, uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena direla aurrerabide eta kohesio soziala eragiteko gai diren elementu estrategikoak, eta pertsonak, berriz, eredu berri horren giltzarriak. Hau da, talentuaren, antolaketaren eta teknologiaren arteko oreka egokia topatuta, modu iraunkorrean garatuko den lurralde bihurtzeko.

Ikuspegi horrekin, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera bideratuta egunerokotasunean pertsonak egindako jarduera guztiak biltzen ditu bizi osoko ikaskuntzak; hala, bizitzako eremu guztiak txertatzen ditu: pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala.

Dokumentu honetan daude jasota Gipuzkoako pertsona helduen jarduerak, ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzeari lotuta eta genero-ikuspegitik begiratuta, batez ere, emakumeen partaidetzari begiratuta. Hiru informazio-bloke osatu ditugu:

- Emakumeen parte-hartzea ikaskuntza-jardueretan.
- Emakumeek zer ekarpen egiten duten ikasten duten taldeetan.
- Ikasten jarraitzeko asmoan eta ikasteko topatzen dituzten oztopoetan dauden aldeak.

## 2. Emakumea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan

### 2.1. Ikasten duten emakumeak


#### 2.1.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan

**Gipuzkoan, 25 eta 74 urte arteko hamar emakumetik lauk ikasi egiten dute**

Gipuzkoako emakume helduen % 42,5ek ikaskuntza-jarduerak egin ditu azken urtean eta profil gorakorra izan dute azken hiru urteetan.

Ikaskuntzan emakumeek izan duten partaidetza gizonezkoena (% 39,5) baino zertxobait altuagoa da; gainera, azken hiru urteetan profila geldituta dago

#### 1. grafikoa Ikasten duten helduak, generoaren arabera



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.1.2. Aldi baterako perspektiba: partaidetza gorakorra

### Azken bederatzi urteak: Ikaskuntzako partaidetzak gora egin du bi generoetan


Jarraian, Gipuzkoako emakume helduen ikaskuntzan partaidetzak 2009 eta 2018 artean izan duen bilakaera aurkezten da. Informazio hori hiru azpi-alditan aurkezten da. Horietako bakoitzaren datuak barne hartzen duten urteen batez bestekoa adierazten du eta zehazki:

- 2009-2013, krisi ekonomikoaren eta enpleguaren galera sendoaren aldia
- 2014-2015, jarduera berreskuratzea (BPGd) eta enpleguak okertzeari utzi dio
- 2016-2018, hazkundea eta enplegua berreskuratzea.

Lortutako emaitzek erakusten dute emakumeek eta gizonak ikaskuntza-jardueretan duten parte hartzea oso antzekoa dela: % 36,8 (emakumeen ikaskuntza-tasa, 2009-2013) eta % 41,7 (gizonen ikaskuntza-tasa, 2016-2018) arteko tartean dago.

Horrekin guztiarekin, nabarmendu behar da ikaskuntza-arraila ixten ari dela; izan ere, emakumeen ikaskuntza-tasak hobera egin du eta gizonezkoen tasara hurbildu da. Aintzat hartutako hiru azpi-aldietan -3pp, +0,8pp eta -2,2pp-ko aldeak izan dira.

### 2. grafikoa Ikasten duten pertsonen banaketa, generoaren arabera



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 2.1.3. Ikaskuntzan parte hartzea eta adina


#### Emakume gazteenek dute ikaskuntzan parte-hartze tasarik handiena

Pertsonen adinak gora egin ahala, ikaskuntza-jardueretan parte-hartzeak behera egiten du. Gertaera hori, Gipuzkoako herritarren kasurako egiaztatutako dena, emakumeen taldearekin ere gertatzen da. Horrela, 2016 eta 2018 artean

- 25 eta 34 urte arteko (% 57,9) eta 35 eta 44 urte arteko (% 53,3) emakumeen erdiek baino gehiagok ikaskuntza-jardueraren bat egin dute azken hamabi hilabeteetan zehar. Eta emakume helduen (% 39,5) parte-hartze tasa baino % 15-20 tasa altuagoan egiten dute.
- Horrekin guztiarekin, 45 eta 64 urte arteko hiru emakumetatik batek ikasi egiten du (% 34,7), emakume helduen tasa bateratuaren oso hurbileko balioan (% 39,5).
- Eta argi eta garbi, 65-74 urte arteko emakumeak dira gutxien ikasten dutenak. Hala ere, nabarmendu behar da hamarretik batek (% 12,6) behintzat adierazi duela ikaskuntza-jarduerak egin dituela azken urtean.

Azken finean, Gipuzkoako hamar emakume helduetatik ia lauk ikasi egiten dute. Proporzio hori, 25 eta 45 urte arteko emakumeen artean, hamarretik bostekoa izatera iritsi da, eta adin horretatik aurrera, tasa baxuagokoa.

#### 3. grafikoa Ikasten duten emakumeak, adinaren arabera. Batez bestekoa, 2016-2018



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikaskuntzan parte-hartzearen aldi baterako bilakaerak erakusten du adin-tarte guztietan parte-hartzeak gora egin duela oro har (65-74 urte artekoetan salbu, beherantz egiten baitu). Hala:

- Ikaskuntza-profila eta adina mantendu egiten da: aintzat hartutako hiru azpi-alditan, adinak aurrera egin ahala, ikaskuntzako parte-hartze tasak behera egiten du; edo gauza bera dena, emakume gazteek (44 urte arte) adin horretatik aurrera baino proportzio handiagoan ikasten dute
- Adin talde guztiek ikaskuntza-tasa mantendu edo hobetzen dute. Gertaera hori bereziki nabaria da 25-34 urte arteko emakumeen eta 35-44 urte artekoen artean, % 4,4ko eta % 11,5eko igoerekin.
- Azkenik, kontuan izan behar da lan-jarduera faktore erabakigarria dela ikasteko motibazioari dagokionez; gainera, ikaskuntza-jarduerak egiteko ardatza da.

Egoera honek adinarekin ikaskuntzak behera egiten duela adierazten du eta, gainera, motibazio pertsonalerantz bideratzea.

### 1. taula Partaidetza, adinaren arabera. Aldi baterako perspektiba

Biztanleria femenino helduaren %a (batez bestekoa)

	25-34 urte	35-44 urte	45-64 urte	65-74 urte
<b>2009-13</b>	53,5	41,8	30,1	15,1
<b>2014-15</b>	58,4	48,9	32,9	10,4
<b>2016-18</b>	57,9	53,3	34,7	12,6
<b>Aldea 16-18 / 09-13</b>	4,4	11,5	4,6	-2,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.2. Emakumeak eta ikaskuntza motak

### 2.2.1. Parte-hartzea ikaskuntza formalean eta ez-formalean

#### Emakumeek ikaskuntza formalaren eta ez formalaren modalitatean ikasten dute

Ikaskuntza-jarduerak bi motatakoak izan daitezke:

- Batetik, ikaskuntza formalekoak. Hezkuntza sistemaren baitan egiten dira eta titulazio ofizial bat lortzea izaten da helburua.
- Bestetik, ikaskuntza ez-formalekoak. Eduki eta programa mugatuak izaten dira eta hezkuntza-zentroetan edo horietatik kanpo egiten dira. Ez daude titulazio ofizialei lotuta<sup>1</sup>.

#### Hamar emakume heldutatik batek ikaskuntza formala jasotzen du eta hirutik batek ikaskuntza ez-formala

Egindako ikaskuntza-modalitatea aintzat hartuz<sup>2</sup>, atxikitako grafikoak, 2016 eta 2018 artean, honako hauek erakusten ditu:

- Emakume helduen artean, hamar emakumetik ia batek (% 7-10) ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartu du, titulu ofizial bat eskuratzeko jardueretan, alegia.
- Hamar emakume heldutatik (25-74 urte artean) hiru/lau emakumek adierazi du ikaskuntza ez formaleko jarduerak egin dituela 2016 eta 2018 artean (% 34,0tik % 37,7ra igaro da, hurrenez hurren)

Eta gainera, 2016 eta 2018 artean, igoera arina nabarmendu da. Aztertu beharko litzateke azkenik hurrengo ekitaldietan finkatu den.


<sup>1</sup> Ikaskuntza ez-formala (adierazitako ezaugarriei lotu gabekoa) esaten zaion horrekin osatzen da eta ez dator bat ikaskuntza iraunkorraren edo bizi osoko ikaskuntzaren definizioarekin.

<sup>2</sup> Ikaskuntza informaleko jarduerak talde horretatik kanpo geratzen dira; hau da, ikasteko xedearekin norik bere kabuz inolako zentrotara joan gabe gauzatutakoak. Horiek ere aztertu ditugu eta beste dokumentu batean aurkeztuko ditugu.



**4. grafikoa Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan, motaren arabera. 2016-2018**

Biztanleria femeninoaren %a (25-74 urte)



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia


**2.2.2. Parte-hartzea ikaskuntza-modalitatearen eta adinaren arabera**

**Lau emakume heldu gaztetatik batek ikaskuntza formalean parte hartzen du**

Gipuzkoan, emakume helduen ikaskuntza formalean, parte-hartze tasa % 8,3koak da. Baina alde handiak nabari dira adinaren arabera. Horrela, emakume gazteenen taldeak (25-34 urte) hirukoiztu egiten du emakume helduek (% 26,3) ikaskuntza formalean duten parte-hartze tasa. 35-44 urte arteko emakumeak (% 9,7) berriz, batez bestekoaren gainetik kokatzen dira zertxobait.

**5. grafikoa Emakumeen partaidetza ikaskuntza formalean, adinaren arabera. Batez bestekoa, 2016-2018**

Biztanleria femeninoaren %a (25-74 urte)



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia



Aztertutako hiru azpi-aldietako partaidetzaren emaitzek erakusten dute ikaskuntza formaleko partaidetza-tasa handiagoa dela talde gazteen artean.

Gainera, 2009-2013 eta 2016-2018 artean, ikaskuntza ez formaleko tasak gora egin du talde gazteenekoen artean (25-34 eta 35-44 urte), eta bere horretan gelditu da edo behera egin du adinez nagusiagoko emakume taldeen artean (45-64 eta 65-74 urte).

Azken finean, 2009 eta 2018 artean, ikusi da Gipuzkoako hamar emakume heldutatik ia batek ikaskuntza-jarduera formalen bat egiten duela. Emaitza hori areagotu egiten da adinez gazteenak (25-34 urte) direnen artean. Horiek dira ikasten dutenak tasa adierazgarrian.

**2. taula Ikaskuntza formalean parte-hartzea, adinaren arabera Batez bestekoak 2009-2013, 2014-2015 eta 2016-2018**

Biztanleria femeninoaren %a (25-74 urte)

	25-34 urte	35-44 urte	45-64 urte	65-74 urte
<b>2009-13</b>	23,2	6,8	4,2	1,5
<b>2014-15</b>	16,9	5,7	2,3	0,0
<b>2016-18</b>	26,3	9,7	3,5	0,5
<b>16-18 / 09-13 aldea</b>	3,1	2,9	-0,7	-1,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Azkenik, egindako kontsultan aintzat hartzen ez den arren, nabarmendu nahi da hezkuntza formalaren zati handi bat hirugarren mailakoa izango litzatekeela, eta askotan, gradu ondoko ikasketekin bat etorriko litzateke. Gertaera hori koherentea da iraganeko belaundietan baino prestakuntza maila altuagoa duten herritar gazteekin (orotara eta are gehiago emakumeak).

**3. taula Emakumeen instrukzio maila Gipuzkoan, 25-74 urte. 2010 eta 2016.**

Biztanleria femenino helduaren %a (batez bestekoa)


	2010				2016			
	Lehen maila eta baxuagoa	Bigarren maila eta profes.	Tarteko-goi mailakoa	Goi mailakoa	Lehen maila eta baxuagoa	Bigarren maila eta profes.	Tarteko-goi mailakoa	Goi mailakoa
<b>25-34 urte</b>	11,8	39,8	16,7	31,6	9,0	40,4	16,0	34,6
<b>35-44 urte</b>	23,4	38,1	14,6	23,9	16,6	38,1	15,7	29,6
<b>45-64 urte</b>	47,6	33,4	9,1	9,9	36,2	37,5	11,4	14,9
<b>65-74 urte</b>	78,8	15,6	3,4	2,2	69,4	22,9	4,6	3,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 25-34 urteko bi emakumetatik batek ikaskuntza ez formaleko jardueraren batean parte hartu du

Ikaskuntza ez formaleko jardueren kasuan, Gipuzkoako emakume helduen parte-hartze tasak ere adinarekin lotutako profila erakusten du, eta oro har, adinarekin behera egiten duela ondoriozta daiteke. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, ikaskuntzako partaidetza-tasarik altuena 35-44 urteko emakumeei (% 49,1) dagokie, emakume gazteagoek (% 43,0) erregistratutakoa gainditzen duen tasarekin. Azkenik, partaidetzak % 12,6ra arte egin du behera 65-74 urte arteko emakumeen kasuan.

**6. grafikoa Emakumeen partaidetza ikaskuntza ez-formalean, adinaren arabera. Batezbestekoa, 2016-2018**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emakumeen ikaskuntza ez formaleko tasaren aldi baterako bilakaerak gora egin du 35etik 64 urte arteko (% +9,5 eta % +4,5) pertsonen artean eta behera egin du (% -1,4 eta % -2,1) gazteenen eta zaharrenen artean. Kontuan hartu beharrekoa da ikaskuntzaren erakarpen-faktore gisa motibazio profesionalak duen garrantzia.

**Tabla 4 Ikaskuntza ez formalean parte hartzea, adinaren arabera Aldi baterako perspektiba**

	Biztanleria femenino helduaren %a (batez bestekoa)			
	25-34 urte	35-44 urte	45-64 urte	65-74 urte
<b>2009-13</b>	44,4	39,6	27,9	14,7
<b>2014-15</b>	49,4	46,6	30,3	11,3
<b>2016-18</b>	43,0	49,1	32,4	12,6
<b>Aldea 16-18 / 09-13</b>	-1,4	9,5	4,5	-2,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.3. Partaidetza jarraitua ikaskuntzan

### Kontsultaren aurreko lau asteetan egindako ikaskuntza


Inkesta egin aurreko lau asteetan ikaskuntza iraunkorrean partaidetza jarraitua izatea ikaskuntza-jarduerak egitean datza.

2026tik 2018ra eskuratutako emaitzak erakusten du, batez beste, Gipuzkoako emakume helduen (25-74 urte artean) % 17,4k ikaskuntza-jardueretan etengabe hartu duela parte.

Eta ikaskuntza motaren arabera, ikus daiteke emakumeek ikaskuntza ez formaleko jardueretan duten etengabeko partaidetzaren tasa % 13,8koa dela; hau da, jarduera formaleko batez besteko partaidetza ia hirukoizten du kopuruak (% 5,1).

Modalitatearen arabera ikaskuntzan parte hartzeko eredu hori etengabeko ikaskuntzarekin lotuta ezarritakoaren antzekoa da (azken 12 hilabeteak).

### 7. grafikoa Emakume helduen partaidetza jarraitua ikaskuntzan (azken lau asteak). Batez bestekoa, 2016-2018




Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Ikaskuntza jarraituko partaidetza handiagoa da emakume gazteen artean

25-34 urteko (% 30,4) hiru emakumetatik batek maiz ikasten du (azken lau asteak). Proporzio hori emakume helduen (% 17,4) batez bestekoaren ia bikoitza da.

Gainera, 35-44 urteko bost emakumetik batek ohiko moduan ikasten du (% 20,7) eta batez besteko balioaren gainetik zertxobait (% 17,4). Argi eta garbi, 45 urtetik aurrera, partaidetza-tasa horrek behera egiten du.

**8. grafikoa Emakumeen partaidetza etengabeko ikaskuntzan, adinaren arabera. Batez bestekoa, 2016-2018**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

# 3. Ikasteko pertsonen arrazoiak, trabak eta asmoak

## 3.1. Bizi osoan zehar ikasteko arrazoiak

### Arrazoi profesionalak dira emakumeen ikasteko arrazoi nagusiak

Azken hiru urteetan, Gipuzkoako emakume helduek ikaskuntza-jardueretan (formala eta ez-formala) duten partaidetza arrazoi profesionalarekin dago batez ere lotuta.

2016 eta 2018 artean lortutako emaitzek aldaketa arinak izan dituzte eta nahiz eta motibazio profesionala den oraindik ere garrantzitsuena, motibazio pertsonalaren argudioak gora egin du. Hain zuzen ere, hezkuntza formaleko segmentuan nabari da hori neurri handiagoan.

**5. taula Emakume helduen ikasteko arrazoiak. Ikaskuntza formala eta ez-formala. 2016-2018**

Biztanleria femenino helduaren %a (25-74 urte)

	2016	2017	2018
<b>Ikaskuntza Formala</b>			
Arrazoi profesionalak	72,4	57,6	64,1
Arrazoi pertsonalak	27,6	42,4	35,9
<b>Ikaskuntza ez formala</b>			
Arrazoi profesionalak	76,3	70,9	68,2
Arrazoi pertsonalak	23,7	29,1	31,8

*Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia*

### 3.2. Bizi osoan zehar ikasteko oztopoak


#### Hiru emakume heldutatik bik ez dute ikaskuntza-jardueretan parte hartzen

2016, 2017 eta 2018 urteetan zehar, eta urte horietan lortutako emaitzen batez besteko gisa, Gipuzkoako emakume helduen (% 60,5) ia bi herenek ez dituzte ikaskuntza-jarduerak egin azken urtean.

Hiru urtetako emaitzak eta 2016-2018 batez besteko balioa aintzat hartuta, ondoriozta daiteke ikaskuntzan ez parte hartzearen tasa oso antzekoa dela emakumeen eta gizonen artean. Hala eta guztiz ere, egoera zertxobait okerragoa da emakumeen kasuan (% 57,5, ikasten ez duten gizonen ehunekoa, 2016-2018ko batezbestekoa).

Bestalde, ikusten da 2016 eta 2018 artean, herritarren proportzioa ez dela aldatzen.

#### 9. grafikoa Ikasten ez duten helduak, generoaren arabera 2016-2018 eta 2016-2018 batez bestekoa




Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

#### Familia-erantzukizunak dira emakumeek ikasteko oztopo nagusiak

Emakumeen artean, ikaskuntza-jarduerak egiteko oztopo nagusia familia-erantzukizunekin bateragarritasunik ez izatea da. Hori da 2016-2018 aldian ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten emakumeen erdiek (% 51,1) adierazitako arrazoia.

Motibazio falta (% 31,9) eta ikaskuntza laneko ordutegiarekin uztartzeko zailtasuna (% 27,1) dira maiztasun handiarekin aipatu dituzten beste arrazoiak. Azkenik, adina (% 14,8), ikaskuntzaren kostua (% 13,6) eta ikasteko beharrik eza (% 12,3) dira garrantzi gutxien duten oztopoak

**10. grafikoa Ez ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. Batez bestekoa, 2016-2018**



Erantzun anitzak

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da ez ikasteko arrazoietan generoaren arabera dauden aldeak:

- Familia-erantzukizunak adierazten dituzte emakumeek. Arrazoi hori adierazten duten emakumeen proportzioa gizonenen bikoitza baino gehiago da (% 51,1 eta % 22,7).
- Bestalde, gizonentzako oztopo nagusia motibazio falta da (% 34,4); hala ere, ez dago alde handirik emakumeek oztopo horren inguruan egiten duten baloraziotik (% 31,9).
- Ondorioz, bi taldeen artean, familia-erantzukizunak dira gehien desberdintzen direnak, emakumeen kalterako.




### 3.3. Emakumeen ikasteko asmoa

#### Hurrengo urtean, hamar emakumetik lauk ikasteko asmoa dute

2018an, hamar emakume heldutatik lauk (% 40,3) datozen hamabi hilabeteetan ikaskuntza-jardueraren bat egiteko asmoa dute. Gainera, nabarmendu beharrekoa da 2016tik izandako hazkundea. Bertan, hiru emakume heldutatik batek ikasteko asmoa zuen (% 33,0).

#### 11. grafikoa Ez ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. Batez bestekoa, 2016-2018



Erantzun anitzak

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Batez beste, (2016-2018) hamar emakume heldutatik zortzik (% 80,3) modalitate ez formaleko ikaskuntzaren bat egiten dute, eta hamarretik bik (% 19,7), berriz, ikaskuntza formaleko jardueraren bat.

#### 6. taula Datorren urtean ikasteko asmoa eta ikaskuntza mota, sexuaren arabera. Batez bestekoa, 2016-2018

25-74 urteko biztanleriaren %a

	Emakumeak	Gizonak
<b>Ikasteko intentzioa</b>	38,9	41,0
<b>Ikaskuntza mota (%)</b>		
Ikaskuntza formala	19,7	15,9
Ikaskuntza ez formala	80,3	84,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia



Izenburua: Ikasten duten emakumeak Gipuzkoan  
63. dokumentua, 2019ko martxo

Koordinazioa eta gainbegiratzea: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako  
Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lantzea: IKEI, research & consultancy S.A.